

EUSKADIKO TRIATLOI FEDERAZIOKO GATAZKEN JUDIZIOZ KANPOKO ARAUTEGIA

1. Artikulua- Objektua

Arautegi honen helburua Euskadiko Triatloi Federazioko estatutueta gatazken judizioz kanpoko ebazpenaren arloan aurreikusitakoa garatzea izango da.

Gatazken judizioz kanpoko ebazpenak indarrean dagoen arbitrajea eta kontziliazioa orokorrean erregulatuko duen legeria publiko zehatzean arautua jarraituko du, baita kirolaren eremuko gatazken judizioz kanpoko ebazpenerako beste formula batzuek ere.

Euskadiko Triatloi Federazioko esparru juridiko orokorraren eta estatutuen osagarri bezala, arautegi honek erregulatuko du, zehazki, planteatu ahal izango diren gatazken ala diferentzien arbitrajearen ala judizioz kanpoko ebazpenaren erregimena:

- Federazioko federatuen eta bertako kideak diren beste pertsona batzuen artean.
- Federatutako pertsonen artean eta/edo federatuak egon ala ez, federaziokoak diren beste pertsona batzuekin.
- Federazioaren, bere federatuen ala federazioko beste pertsona kide batzuen eta hortik kanpoko beste edozein pertsonaren artean, hirugarren pertsona horren aldetik espresuki eginiko menperatzea antzematen denean.

2. Artikulua-

Administrazioak Euskadiko Triatloi Federazioari eskuordetutako funtzio publikoen, eta lege arloaren edota espresuki arbitrajearen betebeharretatik kanpoko jardunarekin lotutako auziak izan ezean, gainerako guztiak bide honetatik ebatzi ahal izango dira.

3. Artikulua- Subjektuak

Euskadiko Triatloi Federazioa hala nola bere federatuak, federazioko kideen egoera duten pertsonak eta bertan adskribitutako kirol klubak eta elkarteak, borondatez arautegi honetan erregulatuko den arbitrajearen mendean ezarriko dira eta, ondorioz, Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegiaren eta haren arauen mendean.

4. Artikulua- Prozedura

4.1.- Federazio lizentziaren pertsona titularrak gatazken judizioz kanpoko sistemaren eraginpean geratzen direla pentsatuko da hilabeteko epean, lizentzia lehenengo aldiz ematen den datatik aurrera kontatuko dena, edota arautegi hau argitaratzen denetik hilabeteko epea pasatzen denean, espresuki horri uko egin ez badiote, Euskadiko Triatloi Federazioan uko egiteko dagokion idatzia aurkeztuz.

4.2.- Euskadiko Triatloi Federazioko gainerako kideak zeinek federazio lizentziarik erabilgarri izango ez duten (Presidenteak, Zuzendaritza Batzordeko kideak, zuzendariak eta teknikariak, etab.) halaber gatazken judizioz kanpoko sistemaren eraginpean geratzen direla pentsatuko da hilabeteko epean, zein egoera hori eskuratzen duten datatik aurrera kontatuko den, ala arautegi hau argitaratzen denetik hilabeteko epea pasatzen denean, espresuki honi uko egin ez badiote, federaziora uko egitearen dagokion idatzia aurkeztuz.

4.3.- Uko egiteko idatziak ondorengo datuak ekarriko ditu:

- Uko egitea aurkeztuko duen pertsonaren ala erakundearen afiliazio datuak (izena eta abizenak ala gizarte egoitza, helbidea eta IFZ).
- Lizentziaren zenbakia, hala badagokio.

Uko egitea Euskadiko Triatloi Federazioak eskusiboki xede hauetarako erabiliko duen liburu batean erregistratuko du.

5. Artikulua-

5.1.- Euskadiko Triatloi Federazioak hirugarrenei uko egitearen jardueraren berri emango diete, ondorengo zirkunstantziak jazotzen direnean:

- Hirugarren pertsona horrek lizentziaren titularrekin ala Euskadiko Triatloi Federazioko kidearekin diferentzia ala gatazka izateagatik informazioa eskatzen duenean eta arautegi honetan araututako gatazken judizioz kanpoko sistemaren eraginpean jarri nahi duenean.
- Lizentziaren titularren aldetik ala Euskadiko Triatloi Federazioko kidearen aldetik baliogabetze orokorrik ez dagoenean.

5.2.- Eskaera jasotzen denetik 7 eguneko epean Euskadiko Triatloi Federazioaren aldetik erantzunik ematen ez bada, lizentziaren pertsona titularren aldetik ala Euskadiko Triatloi Federazioko kidearen aldetik arbitrajeari uko egin zaiola suposatuko du.

5.3.- Hirugarren pertsonak eginiko informazio eskaera zein Euskadiko Triatloi Federazioak emandako erantzuna idatziz egin beharko dira.

6. Artikulua- Hasiera batean uko egin ondoren arbitrajearen eraginpean jartzeko prozedura

6.1.- Federatuek hala nola Euskadiko Triatloi Federazioko gainerakoek, arbitrajearen eraginpean jartzearekiko hasiera batean espresuki eginiko uko egitearen ondoren, hasiera batean gatazken judizioz kanpoko sistema horren eraginpean jarriko direnek, izaera orokorrekin zein gatazkaren ala diferentzia zehatzaren ebazpenerako, arautegi honen Eranskinean adierazitako terminotan mendekotasun-konpromisoa sinatuz eskatu beharko dute.

6.2.- Arbitrajearen bidez eginiko gatazken judizioz kanpoko sistemaren ezarpenerako eskaeraren balioztapenerako, hura pertsona interesdunak sinatutako idatziaren bidez egin beharko da.

6.3.- Eskaera hori Euskadiko Triatloi Federazioan ala Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegiaren aurrean aurkeztu beharko da.

6.4.- Euskadiko Triatloi Federazioak 15 eguneko epean ebatzi beharko du ezarpenerako eskaera, eta horren inguruan hartutako ebazpena pertsona interesdunari idatziz jakinaraziko zaio.

7. Artikulua-

Gatazken judizioz kanpoko sistemaren eraginpean jartzeko eskaera orokorra denean, hura edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

Federazioak emandako ebazpena planteatutako eskaerarekiko aldekoa denean, hark ofizioz baja emango dio bere egunean eginiko uko egitearen adierazpenari, arautegi honetan aurreikusitakoaren arabera.

8. Artikulua-

Gatazka ala diferentzia zehatz baten ebazpenerako arbitrajearen eraginpean jartzeko eskaeraren kasuan, pertsona ala erakunde interesdunak bere eskaera aurkeztuko du Euskadiko Triatloi Federazioaren aurrean edo bestela Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegiaren aurrean, hirugarren interesdunaren aldetik edota hirugarren pertsona horrek hala eskatuta Euskadiko Triatloi Federazioaren aldetik eskatzen denetik hurrengo 15 egunen barnean.

9. Artikulua-

Organoa zeinen kargu utziko den arbitrajea eta, orokorrean, gatazken judizioz kanpoko ebazpena Euskadiko Kirol Federazioen Batasunak eratutako Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegia izango da.

10. Artikulua-

Arbitrajearen aplikaziorako prozedura eta, bere kasuan, gatazken judizioz kanpoko beste edonolako sistemarena, Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegiak berak aurreikusitakoa izango da.

11. Artikulua-

Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegiko laudoen borondatezko ala derrigorrezko jarduera, auzitegiaren Kirol Arbitrajearen Kodean espresuki aurreikusitako moduan gauzatuko da.

ERANSKINA

a) Federatutako pertsonentzako eredia.

...Jn./And., ...NAN zenbakiarekin, ...helbidearekin ...IFZ eta Euskadiko Triatloi Federazioko lizentziarekin, idatzi honen bidez espresuki Federazioak ezarritako eta araututako gatazken judizioz kanpoko sistemaren mendean jartzen dela adierazten du, Euskadiko Triatloi Federazioa eta sinatzen duenaren artean ala beste federatu nahiz kide batzuk eta sinatzen duenaren artean sortu ahal diren eztabaida ala gatazka haiek ebazteko,

... (e)n, ...-ko, ...(e)an

Izpta.:

b) Federazioko kidearen egoera duten pertsonentzako eredia.

...Jn./And., ...NAN zenbakiarekin, ...helbidearekin ...IFZ eta Euskadiko Triatloi Federazioko lizentziarekin, idatzi honen bidez espresuki Federazioak ezarritako eta araututako gatazken judizioz kanpoko sistemaren mendean jartzen dela adierazten du, Federazioa eta sinatzen duenaren artean ala beste federatu nahiz kide batzuk eta sinatzen duenaren artean sortu ahal diren eztabaida ala gatazka haiek ebazteko,

... (e)n, ...-ko,...(e)an

Izpta.:

c) Kirol klubetarako eta taldetarako eredia.

...Jn./And., ...NAN zenbakiarekin, ...helbidearekin, ...IFZ eta Euskadiko Triatloi Federazioko lizentziarekin, idatzi honen bidez ordezkatzeko duen erakundea espresuki Federazioak ezarritako eta araututako gatazken judizioz kanpoko sistemaren mendean jartzen dela adierazten du, Federazioa eta sinatzen duenaren artean ala beste federatu nahiz kide batzuk eta sinatzen duenaren artean sortu ahal diren eztabaida ala gatazka haiek ebazteko,

... (e)n, ...-ko, ...(e)an

Izpta.:

Izpta. Presidentea

Izpta. Idazkaria